

EUSKERA ZALEAK

Guttenberg'ek irarkolarako lanabesik bearrezokoenak asmatu zituanean, lan aundi bat egin eban gizartean jakintza zabaltzeko bideetan.

Asmakizun onuragarria berea!

* * *

Euskalerrira berandu-samar eldu jakun asmakizun goragarri au erabiltea.
Gu, berbako gizonak be ba-giñan-eta, ez giñan ain gogotsu sartu irarlolarean bideetara.
Eta, orregaitik ete da?, gaur be ez gara irakurten zaleak.
Irakurtekotan be erderaz idatzia naiago sarritan.
Durango'ko azokan euskerazko ainbeste liburu ikuseak poztu gaitu.

* * *

Bearrezko gauzea eta guztiz egokia dogu izparringien eta aldizkarien alde zabalkundea egitea, naiz-ta zabalkunderik ederrena, euskera garbiz, ederrez eta ulerterrezez idaztea izan.

Eta onetan, urria da aspaldiko zabalkundea!

* * *

Eta zabalkundea egitean, neurriak estu ipiñi eta baldintza zorrotzak ezarri? Zuek ez zaree euskal-aldizkaria eta zuek ba-zaree, asi?

Egoera larria, bai, euskera idatziarena, eta euskaldunak eurak egoera ori larriago biurtzen.

* * *

Dana dala, jarraitu dagigun aurrera, idatzi ta irakurri.

Eta lagindu dagiegun aldizkariak, euskerea zabaltzearen gatxa egokiro bete da-gien.

Gaur-egun gastuak gora ta gora doaz eta laguntza bear dogu.

OLAZAR'tar Martin'ek

GOIZ-ARGI

Erribideko aldizkaria

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

Erderaz

BARRIAK ETA ARAZOAK

SASKI-NASKI

ERRIBIDEKO ALDIZKARIA

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

munduko goraberak, jazokizunak, barregaiak...